

HEZKUNTZA

Curriculumari buruzko lumak

Fito Rodriguez Bornaetxea

Dudarik gabe pasa den ikas-urtean sortutako liburugintzaz aritzerakoan Curriculum hitza aipatu beharra dago ezinbestean. Izan ere, Irakaskuntzaren eremuan ikasketa plangintza birmoldatu ahal izateko bera dugu gehien erabilitako kontzeptua eta, ondorioz, bere itzalean kokatu ohi dira hezkuntza mailan egoera berriari egokitu nahi izan diren diskurtso zein praktika teorikoak.

Halere, Curriculum deitutako ikas-gaien banaketa heziketa munduan ez da atzo goizekoa, irakaskuntza era moderno batez antolatzen hasi zenekoa baizik. Hasiera batetan, XVII. mendean zehatzagoak izanik, Unibertsitate kalbinisten barne eraketarako erabili zen kontzeptua bazen ere (*Hamilton, D. —1989—“Towards a Theory of Schooling”: Falmer Press, London.*) laister eskolarra bihurtu den hezkuntza kudeaketa guztietara zabaldu da. Areago oraindik, eskola bidezko nazio eraikuntza berriak curriculumetan oinarritutako sistemaz baliatu direla esaterik ere badago egon (*Swaan, A. —1991— “El curriculum elemental como código nacional de comunicación”: Rev. de Educación. 295 zb. 207/290. orr.*). Horrexegatik, Eusko Ikaskuntzak antolaketa kurrikularraren inguruan bere azken Kongresua ospatzea, 93/94 ikas-urtearen hasieran hain zuzen, ez da batere harrigarria. Aitzitik, ekitaldiak bete-betean erantzun nahi izan zion Euskal-Herrian hedatuta zegoen galdera bati, hau da: **—Zein izan daiteke Euskal Herriari dagoen curriculum?...**

Isilik aldizkariak, bere 19. alean, E.I.ren XII. kongresuaren kudeatzailea zen Rafa Lopez Atxurrearekin egindako elkarriketa luzea argitarazen digu (13/16 orr.). Honetaz gain, eta beti ere Curriculumaren inguruan aritzerakoan Jaione Apalategiren ekarpena dator (*“Euskal Irakaskuntza eta Curriculum”*). Kultur gaiak bere orokortasunean, eta batik bat, Gizarte Zientzietan dagozkien arloak jorratuz Bego Bilbaoren artikulua dugu (*“Erreforma, Curriculum eta Kultura”*). Azken korapilo hau —Erreforma eta Curriculumaren arteko harremanak— argitu nahian Abel Ariznabarretak eskaintzen digu bere *“Pedagogi Berrikuntza, versus Erreforma”* izeneko lana. Bukatzeko, berriz, luze emango duen gaia: Elebiduntasuna, Xabier Isasi eta Lore Erriondoen esku; *“Euskal Eskola, Elebiduntzeko eskola ?”*.

Aipatutako azken ikertzaile hauen lanaren ondorioa da ere *“Euskal Curriculum eta elebiduntasunaren garapena”*: **Ele** aldizkariaren 14. alean kaleratutako. Bertan euskal irakaskuntzarako ahaztu ezinezko ekarpenak dira, besteak beste, Bernahrd Mathiveten *“Sugestopedia”* artikulua zein Jürgen Wolfen *“Sugestopedia AEKn?”* izenburuko hausnarketa.

Eusko Ikaskuntzari gertatutakoa aplika dezakegu era berean **Udako Euskal Unibertsitateko Pedagogia Sailak** Euskal Curriculumaz aritzeko Iruñean antolatutako ihardunaldieta. Nahiz eta bertan ibilitako ponente guztiak beren ikerketak polikopietan banatu, ez da, orain arte behintzat, horren islada inolako testu normalizatuan agertu. Lehenengoaren antzera, ez dut esango soilik kaleratzeak presa duela, premiazkoa dugula baizik. Bertan ibilitako zenbait

hizlari aipatzeagatik honako hauek erakarriko ditut hona: Xabier Garagorri, Paulo Iztueta, Jokin Larrañaga, Mila Izeta gehi Santurtziko PATeko mintegia eta "Zumaburu-Kaxkarro" Eskola Publikoaren proiektua...

Ez da gauza bera gertatzen, halere, Udako Euskal Unibertsitateak kaleratzen duen **Uztaro** izeneko aldizkariarekin. Izan ere, bere 9. alea monografikoa genuen Euskararen Batasunaz baina, ohizkoa ez dena, hezkuntzaren ikuspegitik jorratua. Horrela, eta euskara batuaren gizarteratze prozedura irakaskuntza sektore desberdinen bidez arakaturik, Paulí Dávila bere "*Euskal Alfabetatzearen ereduaren eraiketarako osagaiak*" eskeini zizkigun, Idoia Fernandezek bere "*Gerraondoren historia luzea: Euskal Eskolagintza*", Ana Eizagirrek, berriz, "*Euskal Alfabetatzea: Euskararen erabilerak (1979-1990)*", Iñaki Zabaletak bere "*Helduen alfabetatze-euskalduntzea: erakundetze polarizatua (1981-1990)*" argitaratzen zuen bitartean.

Udako Euskal Unibertsitatea eta Euskal Kulturaren Batzarraren artean soziolinguistikazko testuak argitaratzen dituzte. Elkarlan honen aurtengo emaitza dugu **Soziolinguistika matematikoa**, José Luis Alvarez Enparantza eta Xabier Isasi Balantzategi irakaleek prestatutako liburua. Arlo honi buruz iaioa ez denarentzat zail xamarra bada ere, hizkuntz ukipen egorari buruz bai gizarte osoan baita heziketa eremuan ere gertatzen denaz jabetzeko liburuak marcatzen dituen ikuspegiak guztiz eraginkorrak dira. Hezkuntza arloari gehiago atxekituz, hain zuzen, aurreko liburuaren ondorio zuzenak antzeman daitezke Udako Euskal Unibertsitateak zenbait egile desberdinen artean kaleratutako **Hizkuntza, Hezkuntza eta Elebiduntasuna** izeneko liburuxkan, non Urola Bailerako eskoletan egindako ikerketari esker nahikotxo ondo frogaturik geratzen den euskara, baldintza hoberenetan ere —euskal jatorrizko hiztunak, soziolinguistikoki euskalduntzat har daitezkeen zonaldetan eta euskal eruedetan heziturik—, bigarren mailako hizkuntza dela. Baita "d" ereduak aurrera eramaten dituzten eskolen artean ere. Dudarik gabe, ezagutu beharreko ikerketa eta erabili beharreko datuak azaltzen zaizkigu aipatutako liburuan.

Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen zerbitzuan, berriz, Tesis Doctorales izeneko Sail berria zabaltzen hasia dago iadanik. Bertan hezkuntzarekiko harremanetan daudenak badaude. Eskainitako aukera jorratuz gero bi izango dira hemen azpimarkatzeko hautatutakoak; Naya Garmendia, L.M. "**Adaptación escolar y Bilingüismo en 8º de E.G.B. Resultado de una investigación realizada en la comarca de Donostia-San Sebastián**" Euskal Komunitate Autonomoaren hezkuntza egoera ezagutarazteko zenbait gako metodologikoak ematen baititu; eta Etxagüe Alcalde, X. ren "**Nafarroako D ereduko 8-gn. mailako ikasleen euskara errendimendua. Hainbat aldagai eskolarren eragina**", aurrekoaren antzerkoa egiten baitu baina Nafarroako egoerari dagokion neurrian.

Euskal Herriko Unibertsitateak ere badu eduki Hezkuntza Aldizkaririk, **Tantak** izenekoak. Bere 11. alean goian aipaturiko bi ikertzailek gehi beste aditu batzuk (J.F. Lukas, F. Etxeberria, P. Arregi, J. Arzamendi, I. Dendaluze eta J. Etxeberria...) "*B ereduaren egoeraren deskribapena eta tipologia ikerketaren lehen urratsak*" ematen dizkigute. Honetaz gain, hiru dira hizkuntza/hezkuntza arazoaren inguruan agertzen diren artikulua, hirurak egia esanda, kalitate handikoak. Hona hemen:

R. Sotoren "*Murgilketarako irakaslearen mintzairaren azterketa funtzionala eta bere ego-kipena bigarren hizkuntzako ikaslearen konpetentzi mailara*"; J. Cenoz/J. Valencia irakaslearen artean idatzirikoa "*Elementu psikosozialen eragina bigarren hizkuntzaren jabetzean: bizitasun etnolinguistikoa, sare soziala eta motibazioa*"; eta L. Oihartzabalen "*Hizkuntzaren lorpen-prozesua paradigma eraikitzailearen ikuspegitik. Ikerketarako hainbat ohar eta galdera*". Museoak, haurtzaroren babesa politikak eta Natur arloaren irakaskuntzak ere jorratuak azaltzen zaizkigu R. Zulaika, A. Uribe-Etxeberria eta M. Haranbururen eskutik.

Beste ildo desberdinetik doa Filosofi eta Hezkuntz Zientzien fakultateko **Iralka** deritzaneko kolektiboak kaleratzen duen izen bereko aldizkaria ("Taller de herramientas conceptuales", beren hitzetan). Hirugarren alea "Creer, Fiar, Obedecer.." lemapean ari zaigu eta badago bertan heziketarekin zerikusi zuzena duena, ikusi bestela "*Egunoroko fede txikien alde*" izenburuko artikulua...

Baina Curriculum arloari itzuliz, ikerketaz aparte ez dira ahaztu behar proposamen didaktiko zuzenak. Zeregin honetan, bada, aipamen berezia merezi du Gipuzkoako Ikastolen Elkar-tea eta Elkar argitaletxearen artean kaleratutako **Beleko** Sailan. Zabaldutako azken emaitzek (Lehen hezkuntzako hirugarren ziklorako eginak daudenak batik bat) atzean lan serioa bezain egokiaren aurrean gaudela frogatzen dute.

Azkenik eta gero, etorkizunen batean, 1993/94 ikasturte honetaz zerbait gogoratzen baldin badugu **XUXEN** euskal ordenagailuentzako korrektorearengatik izango delakoan nago. Bazen garaia eta garaiz etorri zaigu Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateatik (I. Alegria, X. Arregi, X. Artola eta beste zenbait irakasle esker) **UZEIK** emandako laguntzarekin batera. Hezkuntzari begira solik egina ez badago ere bere aplikapenak euskal hezkuntzan gure hizkuntzaren normalizaio bidean estimagarria izateaz aparte, hezkuntzak berak egunorokotasunean dituen erroka txiki zein handien aurrean erantzuteko era berri batez laguntzea lortuko du. Ez da, beraz, makala azken ikasturte honek eskeini diguna... On egin !!